48 02
GURUTZALDIAK BILBON

Olgetarako itsas bidaien mundua beti luxuarekin eta aberastasunarekin estu lotuta egon da. XX. mende amaieran, gurutzaldiak iraupen desberdineko (egun bakarretik hainbat hilabetera) eta, beste edozein bidaia motarekin konparatuz, oso prezio lehiakorretan bidaiak eskaintzeko gai zen industria bilakatu ziren, oso erakargarriak ziren erosotasunak eta zerbitzuak eskainiz.

Panorama berri honek, ordea, nolabaiteko masifikazioa ekarri du eta ondorioz, gurutzaldi baten xarmantasuna, nolabait, galdu egin da, gero eta handiagoak diren ontziak, barrutik, itsasontziak baino gehiago, merkatal zentroak diruditelako. Era berean, hainbat ontzi-enpresa (Crystal, Regent Seven Seas, Seabourn, Silversea, etab.) benetan luxuzkoak diren gurutzaldietan espezializatu dira (prezio garestiak eta bidaiari guztientzako tratu bikaina), baina ontzi-enpresa gehienek, berriz, itsasontziak barrutik bereiztea erabaki dute, bidaiariek aukeratutako ostatu motaren arabera. Horrenbestez, teorikoki mota bakarreko itsasontziak dira, baina prezio, tratamendu eta zerbitzu desberdinak aplikatzen dituztenak, ahalik eta bezero aukera zabalenenera iristeko helburuarekin.

Gurutzaldietara dedikatzen diren konpainietan nazioarteko kontzentratze prozesu bat eman da, beraz, konpainia hauen artean bi nabarmentzen dira, baiak, nagusiki, Ipar Amerikakoak: Carnival corporation eta Royal Caribbean cruises. Lehenengoa gaur egun oraindik jatorrizko izena kontserbatzen duten ontzi-konpainia zaharrak eskuratzen joan zen, horien artean zenbait desberdintasun edo nazionalitate zehatz baten publikoei zuzenduriko zenbait desberdintasun eskainiz; besteak beste: Carnival, Costa, P&O, Holand America Line, Cunnard, Princess, Aida, Seabourn, etab. Bigarren kasuan, hauek dira erabilitako markak: Royal Caribbean, Celebrity, Pulmantur, Azamara, etab. Horiez gain, dimentsio txikiagoko bestelako konpainia independente ere badaude: NCL (Oceanía cruises eta Regent Seven Seas markak dituela), MSC, Disney, etab. Baita belaontzietan espezializatutakoak ere: Windstar, Star clippers, etab.



"Prinsemdam" itsasontzi txikia (38.000 TRB), Getxoko moiletan porturatuta, 2015ean. 835 bidaiarientzako lekua dauka; Holand America Line konpainiakoa da, "Carnival" konpainiaren filiala, munduko gurutzaldien konpainiarik handiena.

Gurutzaldiek eskala egiten duten portuetara ekartzen duten bisitari kopuru handiaren aurrean, Euskal Herriak bere erantzuna eman behar zuen. Bertan, bi portuk dute, bakarrik, hainbeste jende hartzeko edukiera (txalupen erabilera alde batera utzita edo lehorreratzeetan lagunduz): Pasaia eta Bilbo.

Lehenengoak 180 m luzeratik gorako ontziak porturatzea eragozten duten muga fisiko garrantzitsuak ditu, horregatik, itsasontzi txikiagoek bakarrik lehorreratu dezakete portu honetan (gero eta urriagoak). Hala ere, benetan luxuzkoa den sektorearen zati handiak itsasontzi txikiak erabiltzen ditu, beraz argi dago portu honek landu behar dituen gurutzaldien segmentua zein den, nahiz eta mota honetako ontzietarako azpiegitura zehatzik ez izan.

Bilboko portuak, berriz, ez du honi dagokion inolako mugarik eta bertan itsasontzi handienak lehorreratu daitezke (360 m luzera eta 60 m zabalerakoak); horregatik, 2006. urtean, Getxoko kirol portuaren inguru (5), bi itsasontzi (2 eta 3) batera hartzeko gai zen moila bat eraiki zen.

Lortutako emaitza ona zela eta, 2010. urtean itsas estazio bat gehitu zitzaion (1) eta 2014an, berriz, atrakaleku berri bat (4) Getxoko dikera itsatsita. Eta zelaigune bat ezarri zen ere, mota honetako trafikoarekin lotuta dauden autobusen eragiketak errazteko.

Adierazitako ortoargazkietan "R"motako eta Azura ontziak ikus daitezke.



Getxoko itsas estazioa.



"Prinsendam" itsasontzia, Bilboko portuan.





Ortoargazkia 2014. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco, geoEuskadi. Geografia Erakunde Nazionala. 1. Itsas estazioa, 2 eta 3. itsasontzietarako porturatzea, 4. Itsasontzietarako porturatzea eta porturatzeko etorkizuneko itsas estazio baterako erreserbatutako lekua. 5. Getxoko kirol portua. 6. Getxoko hirigunea. 7. "R" motako itsasontzia. Gaur egun, berdin-berdinak diren hainbat ontzi-konpainiakoak diren zazpi itsasontzi daude (Oceania, Azamara, Princess eta P&O). 30.000 TRB, 181m luzera eta 25 m zabalera dute. Sektorearen batezbestekoarekin konparatuta, itsasontzi txikiak dira eta 686 bidaiari eta 408 tripulatzaile inguru hartzeko lekua dute.



Ortoargazkia 2012. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco, geoEuskadi. UTM 30N ETRS89 // X: 498035.3137 // Y: 4798408.3283. Azura itsasontzia, Getxoko moiletako batean porturatuta. Ortoargazkiaren xehetasunari esker, identifikatu daiteke, gutxienez, ontzi-konpainiaren barruan, itsasontzi honi dagokion familia edo mota; kasu honetan, P&O cruises. Ontzi hau Grand motatakoa da, 115.000 TRB ditu. 2010ean inauguratu zuten, 290 m luzera eta 36 m zabalera dauka. Gehienez, 3.600 bidaiari eta 1.230 tripulatzaile har ditzake.